

**SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN
ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN SAIOAREN AKTA**

2019ko IRAILAREN 30eko SAIOA

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan arestian aipatutako eguneko goizeko hamaikak eta hamabost minutu direla, eta Presidente jaunak alde zuzenetik deituta Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ezohiko bilera egin du, kontseilua eratzeko xedez. Bileran honako hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn.

Bertaratutako bokalak:

Danel Bringas Egilior jn. Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Itziar Carrocera Fernández and. Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Cristina Azpiolea Veiga and. Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Mario Gómez Pérez jn., Sozialistak Udal Taldea.

Olga Pastor Albizu and., Sozialistak Udal Taldea

Amaia Ginea Mardones and., Euskal Herria Bildu Udal Taldea.

Carlos Saez Méndez jn, Euskal Herria Bildu Udal Taldea.

Ainhoa Lopera Corada and., Elkarrekin Podemos/Ezker Anitza-IU/EQUO Berdeak Udal Taldea.

Autonomiadun Erakundearen zuzendaria: Carlos Morán Arostegi jn.

Kontu hartzaile eskuordea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordea: José Fernando García Pañeda.

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

**1. SKAren ARTEZKARITZA-KONTSEILUAREN BATZARREN
MAIZTASUNA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Presidente jaunak, autonomiadun erakundearen estatutuetan adierazitakoari jarraituz, Artezkaritza Kontseiluaren ohiko batzarrak bi hilean behin egitea proposatu du, hilabete bakoitietako lehenengo ostegunean hain zuzen.

Gai horrekin lotuta inork ez duenez beste ezer esan, Kontseiluburu jaunak erabakiari buruzko bozketa egin du eta aho batez onetsi da.

2. SKA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN PRESIDENTEORDEA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.

Presidente jaunak hitza hartu du, eta Estatutuen 7.b) artikuluan ezarritakoa betez, Jon Carrera Rodero jn. proposatu du Autonomiadun Erakundearen presidente orde.

Gai horrekin lotuta inork ez du beste ezer esan. Artezkaritza Kontseilua gaiaren jakinaren gainean dago.

3.- 2019ko EKAINAREN 30era ARTEKO AURREKONTUA GAUZATZEAREN BERRI EMATEA.

Kontseiluburu jaunak ekainera arteko aurrekontuaren egikaritzearen berri eman du, bera barne, Artezkaritza Kontseiluko kideei aurretiaz helarazitako dokumentazioarekin bat etorritz.

Gai honekin lotuta inork ez du beste ezer esan. Artezkaritza Kontseilua jakinaren gainean dago.

4. AUTONOMIADUN ERAKUNDEARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Kontseiluburu jaunak Autonomiadun Erakundearen jardueri buruzko zenbait konturen berri eman du.

5. GALDE ESKEAK.

Zenbait galde-eske egin dira, grabazioan jasota eurak.

Saioaren grabazio osoa honako esteka honetan entzun daiteke:

<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/321tFX9hvIMEz9x>

Jorrazeko gai gehiagorik egon ez denez, Batzordeburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran adierazi den egunean hamaikak eta berrogeita bost minutu direnean. Eta nik, organo honen Idazkari Eskuorde naizen honek hau guztiau ziurtatu egiten dut.

OE
ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN PRESIDENTEA